**GIPUZKOAKO FORU SEKTORE PUBLIKOAREN 2023KO EKITALDIKO URTEKO KONTU BATERATUEN MEMORIA**

**1. SARRERA**

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubideari buruzko martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauaren 127. artikuluaren 1. apartatuak honela dio:

“Gipuzkoako lurralde historikoaren Kontu Orokorrak agiri hauek izango ditu:

a) Gipuzkoako Foru Aldundiaren urteko kontuak eta kudeaketa txostena.

b) Foru sektore publikoa osatzen duten gainerako entitateen urteko kontuak.

c) Foru sektore publikoaren urteko kontu finkatuak”.

**2. ZEIN ENTITATEREN KONTUAK BATERATU DIREN**

Agiri honetan, Gipuzkoako lurralde historikoko foru sektore publikoa osatzen duten entitateen kontuak bateratzen dira.

Honela definitzen dute Gipuzkoako foru sektore publikoa Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubideari buruzko martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauaren 2. eta 6. artikuluek:

- Foru Administrazioak (Foru Aldundia), Erakunde Administrazioak eta merkataritzako foru sozietateek osatzen dute.

- Gipuzkoako Foru Aldundia lurraldeko foru sektore publikoaren entitate bakarra da.

- Foru organismo autonomoek eta foru enpresa-entitate publikoek osatzen dute Erakunde Administrazioa.

- Merkataritzako foru sozietateak dira foru sektore publikoaren kapitalean 100eko 50etik gorako partaidetza dutenak. Merkataritzako foru sozietateen araubidea merkataritza zuzenbidea, zuzenbide zibila edo lan zuzenbidea dira.

**MEMORIA DE LAS CUENTAS ANUALES CONSOLIDADAS DEL EJERCICIO DE 2023 DEL SECTOR PÚBLICO FORAL DE GIPUZKOA**

**1. INTRODUCCIÓN**

El apartado 1 del artículo 127 de la Norma Foral 4/2007, de 27 de marzo, de Régimen Financiero y Presupuestario del Territorio Histórico de Gipuzkoa establece que:

“La Cuenta General del Territorio Histórico de Gipuzkoa se formará con los siguientes documentos:

a) Cuentas anuales e informe de gestión de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

b) Cuentas anuales del resto de entidades integrantes del sector público foral.

c) Cuentas anuales consolidadas del sector público foral».

**2. ENTIDADES CUYAS CUENTAS SE CONSOLIDAN**

En este documento se consolidan las cuentas de las entidades que componen el sector público foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

De acuerdo con lo dispuesto en los artículos 2 y 6 de la Norma Foral 4/2007, de 27 de marzo, de Régimen Financiero y Presupuestario del Territorio Histórico de Gipuzkoa, el sector público foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa se define de la siguiente manera:

- Está integrado por la Administración Foral que se identifica con la Diputación Foral, por la Administración Institucional y por las sociedades mercantiles forales.

- La Diputación Foral de Gipuzkoa es la única entidad del sector público foral de carácter territorial.

- La Administración Institucional está compuesta por los organismos autónomos forales y por las entidades públicas empresariales forales.

- Son sociedades mercantiles forales las sociedades mercantiles en cuyo capital la participación del sector público foral es superior al 50 por 100. Las sociedades mercantiles forales se rigen por el derecho mercantil, civil o laboral.

- Foru sektore publikoa osatzen duten entitateek nortasun juridiko publiko bereizia eta bere ondarea eta diruzaintza dituzte, baita kudeaketa egiteko autonomia ere, betiere foru arau honetan eta gainerako araudi aplikagarrian ezarri denaren arabera.

2022ko abenduaren 31n, hauek dira Gipuzkoako foru sektore publikoa osatzen duten erakundeak:

- Gipuzkoako Foru Aldundia (P2000000F zk.ko IFK)
- "Uliazpi Fundazioa" foru organismo autonomoa (Q7050001B zk.ko IFK)
- "Kabia" foru organismo autonomoa (Q2000587B zk.ko IFK)
- "Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia S.A." foru sozietate publikoa (A20783023 zk.ko IFK)
- "Etorlur Gipuzkoako Lurra SA" foru sozietate publikoa (A20321931 zk.ko IFK)
- Informatika Zerbitzuen Foru Elkartea S.A. "IZFE" (A20456976 zk.ko IFK)
- Kirolgi Fundazioa (G20633897 zk. ko IFK)
- Sueskola Gipuzkoa Fundazioa (G75005306 zk. ko IFK)
- Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa / Fundación Cambio Climático de Gipuzkoa (C.I.F. G75203687)
- Ziur Fundazioa (C.I.F. G75203067)
- Fundación Adinberri Fundazioa (C.I.F. G75204867)
- MUBIL Fundazioa (C.I.F. G75223388)
- BSTK Fundazioa (C.I.F. G72868631)

**2.1. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**

Uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 2005eko uztailaren 20ko 137 zenbakian argitaratuak, lege esparrua ezartzen du Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernua eta Administrazioa arautzeko.

- Las entidades que integran el sector público foral tienen personalidad jurídica pública diferenciada, patrimonio y tesorería propios, así como autonomía de gestión, en los términos previstos en esta Norma Foral y demás normativa aplicable.

A 31 de diciembre de 2022 componen el sector público foral de Gipuzkoa las siguientes instituciones:

- Diputación Foral de Gipuzkoa (C.I.F. P2000000F)
- Organismo autónomo foral "Fundación Uliazpi" (C.I.F. Q7050001B)
- Organismo autónomo foral "Kabia" (C.I.F. Q2000587B)
- Sociedad pública foral "Bidegi Agencia Gipuzkoana de Infraestructuras S.A." (C.I.F. A20783023)
- Sociedad pública foral "Etorlur Gipuzkoako Lurra S.A." (C.I.F. A20321931)
- Sociedad Foral de Servicios Informáticos, S.A. "IZFE" (C.I.F. A20456976)
- Fundación Kirolgi (C.I.F. G20633897)
- Fundación Sueskola Gipuzkoako Fundazioa (C.I.F. G75005306)
- Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa / Fundación Cambio Climático de Gipuzkoa (C.I.F. G75203687)
- Ziur Fundazioa (C.I.F. G75203067)
- Fundación Adinberri Fundazioa (C.I.F. G75204867)
- MUBIL Fundazioa (C.I.F. G75223388)
- BSTK Fundazioa (C.I.F. G72868631)

**2.1. DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA**

La Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 137 de 20 de julio de 2005 establece el marco legal mediante el que se regula la Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Zehazki, atariko tituluan honako hau dio 1. artikuluak:

"Usadio historikoari jarraituz, Batzar Nagusiak eta Foru Aldundia dira Gipuzkoako Lurralde Historikoko Foru Erakunde eta Organoak."

## 2.2. GIPUZKOAKO FORU SEKTORE PUBLIKOKO ENTITATEAK

### 2.2.1. Foru Organismo Administratibo Autonomoak

Foru organismo autonomoak Gipuzkoako lurralde historikoko entitate publikoak dira. Administrazio zuzenbidearen arabera jokatzen dute, eta haien xedea da zerbitzu publikoak sustatu, eman edo kudeatzeko jarduerak egitea deszentralizazio araubidean beti.

Beren funtzioak betetzeko, foru organismo autonomoek baimendu zaizkien diru-sarrera propioak izango dituzte, baita Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorretatik jaso ditzaketen zuzkidurak ere.

Gipuzkoako Foru Aldundiak bi foru organismo autonomo ditu.

- "Uliazpi Fundazioa" Foru Organismo Autonomoa.

  Uliazpi Fundazioa Foru Erakunde Autonomoa ekainaren 5eko 8/1989 Foru Arauaren bitartez eratu zen Erakunde Autonomo Administratibo gisa. Hau da bere xedapen sortzailea: ekainaren 13ko 36/1989 Foru Dekretua, Uliazpi Fundazioa organismo autonomoaren erregelamendu organiko eta funtzionala onartzen duena.

  Uliazpi Fundazioa Gizarte Politikako Departamentuari atxikitako organismo autonomoa da.

  Bere zeregina da adimen urritasuna eta lagunduak izateko beharrizan orokorrak dituzten gipuzkoarren eta horien familien ongizate orokorra eta bizi kalitatearen hobekuntza sustatzea.

  Uliazpi Fundazioak 2023ko ekitaldian onartutako obligazioak 23,2 milioi euro dira.

En concreto, el artículo 1 de su Título Preliminar establece que:

"De acuerdo con su tradición histórica son Instituciones y Órganos Forales del Territorio Histórico de Gipuzkoa las Juntas Generales y la Diputación Foral."

## 2.2. ENTIDADES DEL SECTOR PÚBLICO FORAL

### 2.2.1. Organismos Autónomos Administrativos Forales

Los organismos autónomos forales son entidades del territorio histórico de Gipuzkoa, de naturaleza pública, que se rigen por el derecho administrativo y cuyo objetivo es la realización, en régimen de descentralización, de actividades de fomento, prestacionales o de gestión de servicios públicos.

Para el desarrollo de sus funciones, los organismos autónomos forales dispondrán de los ingresos propios que estén autorizados a obtener, así como de las dotaciones que puedan percibir a través de los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

La Diputación Foral de Gipuzkoa tiene dos organismos autónomos forales.

- Organismo Autónomo Foral "Fundación Uliazpi".

  El Organismo Autónomo Foral Fundación Uliazpi se constituyó como Organismo Autónomo Administrativo por la Norma Foral 8/1989, de 5 de junio. Su creación se realizó mediante el Decreto Foral 36/1989, de 13 de junio, por el que se aprueba el Reglamento Orgánico y Funcional del Organismo Autónomo "Fundación Uliazpi".

  La "Fundación Uliazpi" es un Organismo Autónomo que está adscrito al Departamento de Políticas Sociales.

  Su misión es la de promover el bienestar general y mejora de la calidad de vida de las personas guipuzcoanas que presentan discapacidad intelectual y necesidades de apoyo generalizadas; así como el de sus familias.

  Las obligaciones reconocidas por la Fundación Uliazpi en el ejercicio 2023 han ascendido a 23,2 millones de euros.

- "Kabia" Foru Organismo Autonomoa

Kabiaren sorrera 2014ko azaroaren 6ko 12/2014 Foru Arauak erregulatu zuen, Gizarte zerbitzuak kudeatu, eman eta gauzatzeko Kabia foru organismo autonomoa sortzen duenak.

"Kabia" organismo autonomoa Gizarte Politikako Departamentuari atxikita dago.

Foru organismo autonomoaren eginkizuna da bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuak ematea, Eusko Legebiltzarrak onartutako Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legeak, abenduaren 5ekoak, 22.2 artikuluan araututakoaren arabera. Era berean, Kabiak lehen mailako arretako gizarte zerbitzuak eman ahal izango ditu kudeaketa mandatuko araubidean, zerbitzu horien prestazioa beste administrazio publiko baten eskumena izanik.

Organismo autonomo horren jarduna 2015ean hasi zen, eta ekitaldi hartan partzialki hartu zuen Elgoibarko San Lazaro adinekoen udal egoitza. Entitateak bere kudeaketa guztira 16 egoitzetan egiten du: Andoain, Arrasate, Azkoitia, Bergara, Eibar, Elgoibar, Errenteria, Hernani, Irun, Lasarte, Oñati, Ordizia, Pasaia, Tolosa, Villabona eta Zumaia.

Kabiak 2023ko ekitaldian onartutako obligazioak 70,6 milioi eurokoak dira.

- Organismo Autónomo Foral "Kabia"

Su creación se realizó mediante la Norma Foral 12/2014, de 6 de noviembre, por la que se crea el organismo autónomo foral «Kabia» para la gestión, prestación y ejecución de servicios sociales.

"Kabia" es un Organismo Autónomo que está adscrito al Departamento de Políticas Sociales.

Al organismo autónomo foral le corresponde la provisión de los servicios sociales de atención secundaria regulados en el artículo 22.2 de la Ley del Parlamento Vasco 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales. Asimismo, el organismo autónomo foral podrá prestar en régimen de encomienda de gestión servicios sociales de atención primaria cuya competencia se atribuya a otra administración pública.

Este organismo autónomo inició su actividad en 2015, ejercicio en el que recepcionó parcialmente el centro residencial municipal de personas mayores San Lázaro de Elgoibar. La entidad realiza la gestión en un total 16 residencias: Andoain, Arrasate, Azkoitia, Bergara, Eibar, Elgoibar, Errenteria, Hernani, Irún, Lasarte, Oñati, Ordizia, Pasaia, Tolosa, Villabona y Zumaia.

Las obligaciones reconocidas por Kabia en el ejercicio 2023 han ascendido a 70,6 millones de euros.

### 2.2.2. Merkataritzako Foru Sozietateak

Merkataritzako foru sozietateak Gipuzkoako lurralde historikoko entitate publikoak dira. Agintzen zaizkien eginkizunak dira prestazio jarduerak egitea, zerbitzuak kudeatzea edo kontraprestazioa izan dezaketen herri onurako ondasunak produzitzea.

Zuzenbide pribatuak arautzen ditu Merkataritzako foru sozietateak, salbu eta haien organoen borondatea eratzean, eman zaizkien administrazio ahalmenak erabiltzean eta haien estatutuetan eta gainerako araudi aplikagarrian araututa dauden berariazko alderdietan.

Merkataritzako foru sozietate horietan guztietan %100eko partaidetza du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Hona hemen:

### 2.2.2. Sociedades Mercantiles Forales

Las sociedades mercantiles forales son entidades del territorio histórico de Gipuzkoa, de naturaleza pública, a las que se encomienda la realización de actividades prestacionales, la gestión de servicios o la producción de bienes de interés público susceptibles de contraprestación.

Las sociedades mercantiles forales se rigen por el derecho privado, excepto en la formación de la voluntad de sus órganos, en el ejercicio de las potestades administrativas que tengan atribuidas y en los aspectos específicos regulados para las mismas en sus estatutos y demás normativa aplicable.

Todas las sociedades mercantiles forales están participadas al 100% por la Diputación Foral de Gipuzkoa. Son las siguientes:

- Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia - Agencia Guipuzcoana de Infraestructuras, S.A. sozietate publikoa.

  Xedapen hau dugu haren arau sortzaile: uztailaren 16ko 43/2002 Foru Dekretua, Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia merkataritza – Agencia Guipuzcoana de Infraestructuras, S.A. entitate anonimoaren eraketari buruzkoa.

  Sozietateak Gipuzkoako Foru Aldundiko bitarteko propiotzat eta zerbitzu teknikotzat hartzen da. Gipuzkoako Foru Aldundiak kontratuak esleitu eta enkarguak egin diezaizkioke, betiere kasu bakoitzean dagokion organoak ezarritako zehaztapen eta baldintzekin.

  Gipuzkoako Foru Aldundia haren sozietate kapitalaren %100aren jabea da, 20,7 milioi eurokoa izanik.

  Bidegiren sozietate xedea hauxe da:

  - Bere kabuz edo hirugarren pertsonen bitartez mantentzea, artatzea eta ustiatzea Behobia-Bilbo A-8 Autobideko eta Eibar-Gasteiz AP-1 Autobideko bide-zatiak, horien instalazioak eta horiekin zerikusia duten edozein motatako zerbitzuak –esaterako, zerbitzugune eta garraio-zentroak–.

  - Bere kabuz edo hirugarren pertsonen bitartez proiektatzea, egitea, artatzea, finantzatzea eta ustiatzea Gipuzkoako Foru Aldundiak agintzen dizkion beste autobide batzuk eta gaitasun handiko errepibideak nahiz horiekin lotutako edozein izaeratako instalazio eta zerbitzuak, eta, hala badagokio, azpiegitura horietako tarte berriak, hobekuntzak, zabalkuntzak eta luzapenak.

{2016ko ekitaldian, GI-632 errepidearen Urretxu-Antzuola tarteko obren lizitazioa enkargatu zion Gipuzkoako Foru Aldundiak Bidegiri. Lan horiek 2017-2019 ekitaldien artean egitea aurreikusita dago. 2017an, Gipuzkoako Foru Aldundiak erabaki zuen aldatzea GI-632 saihesbidearen Antzuola-Bergara tarteko lanen kudeaketa mandatua eta lan horien amaiera arautzen dituen CED1 hitzarmena, eta aldaketak ekarri zuen urtero kapital zabalkuntzak egitea lanak finantzatzeko. 2017. urtean, Bidegi SAren 9.9

- Sociedad pública “Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia – Agencia Gipuzkoana de Infraestructuras S.A.”

  La normativa que la regula es el Decreto Foral 43/2002, de 16 de julio, sobre constitución de la entidad mercantil anónima «Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia - Agencia Guipuzcoana de Infraestructuras, S.A.» .

  La sociedad tiene la condición de medio propio y servicio técnico de la Diputación Foral de Gipuzkoa pudiendo conferirle encomiendas y adjudicarle contratos, en los términos y con las condiciones que se determinen por los órganos correspondientes para cada caso.

  La Diputación Foral de Gipuzkoa es propietaria del 100% de su capital social, que asciende a 20,7 millones de euros.

  El objeto social de Bidegi es el siguiente:

  - Mantenimiento, la conservación y la explotación, por sí o por terceras personas, de los tramos guipuzcoanos de la Autopista A-8, Behobia-Bilbao, y de la Autopista AP-1, Eibar-Vitoria, y sus instalaciones, así como los servicios de cualquier naturaleza relacionadas con las mismas, tales como áreas de servicios y centros de transportes.

  - Proyectar, construir, conservar, financiar y explotar, por sí o por terceras personas, otras autopistas y vías de alta capacidad, así como instalaciones y los servicios de cualquier naturaleza relacionados en las mismas, que le sean encomendados por la Diputación Foral de Gipuzkoa y, en su caso, los nuevos tramos, las mejoras, ampliaciones y prolongaciones de las citadas infraestructuras.

Durante el ejercicio 2016 la Diputación Foral de Gipuzkoa encomendó a Bidegi la licitación de la obra de construcción del tramo Urretxu-Antzuola de la carretera GI-632, cuya ejecución se prevé que se lleve a cabo en los ejercicios 2017-2019. En 2017 la Diputación Foral de Gipuzkoa acuerda la modificación del convenio CED1 que incorpora la encomienda de gestión y regula la termińción de las obras de la variante GI-632 tramo Antzuola-Bergara acompañada de una financiación consistente en ampliaciones de capital anuales. En 2017

milioi euroko kapital zabalkuntza izenpetu eta ordaindu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak, GI-632 errepidearen azken tarteari dagokion eraikuntzaren kudeaketa mandatua finantzatzeko. 2019ko martxoaren 26an zabaldu zen zirkulaziorako bide-zati berri hori, eta 2019ko uztailaren 10ean formalizatu zen obra-harrera akta. Korridore honetako azken zatia zerbitzuan jartzearekin, GI-632 honen izena A-636 izatea bideratzen da.

Era berean, 2016ko ekitaldian Bidegiren 3. Garapen Hitzarpen Espezifikoa onartu zen. Horren bitartez, N-1 errepidean ordainleku bat ezartzeko obrak egitea agindu zitzaion, N-1 errepideko ibilgailu astuna Eibar-Gasteiz autobidera desbideratzeko eta lehen errepide horretan trafiko handiegia saihesteko helburuarekin. 2023an Garapenerako Berariazko 3. hitzarmen berri bat formalizatua izan da. Bere objektua da harremanak eta funtzionamendu oinarriak ezartzea, Gipuzkoako A-15 eta N-1 gaitasun handiko errepideetan merkantzia garraioan arituko diren ibilgailu astunek zati jakin batzuk erabiltzeagatik ordainduko duten kanonaren ordainarazpenari eta kobrantza sistemaren mantentze eta ustiaketa eragiketei dagokienez. Kanona kobratzeagatik lortutako diru sarreren erabilerari dagokionez, aipatzekoa da helburu hori aurrez zehaztuta dagoela abenduaren 3ko 5/2021 Foru Arauan. Hala ere, eta Hitzarmen Orokorraren 7. klausulan aurreikusitakoaren arabera, GFAk N-I eta A-15 errepideetan egiten dituen jarduketengatik bere gain hartzen duen gastua Bidegi SAri jasanarazteko aukera ezartzen da, baldin eta jarduketa horiek foru araudiak aurreikusitako jardueren artean badaude, kanona kobratuz Bidegi SAk lortutako diru sarreren balizko erabilera gisa.

Bidegiren 2023ko ustiapen gastuak 138,3 milioi euro dira.

- Etorlur Gipuzkoako Lurra, S.A. foru sozietate publikoa

Etorlur Gipuzkoako Lurra SA sozietatea, lehen “Itten Herriekin Lan Egiten, S.A” eta “Urnieta Lantzen SA” deiturak izandakoa, 1990ean sortu zen.

Bere xedea da lurrak sustatzea, antolatzea, hiritartzea, erostea eta saltzea, lur horietan jarduera ekonomikoak, etxebizitzak, eraikinak eta era guztietako gizarte ekipamenduak jartzeko: eta, orobat, industriarako,

la Diputación Foral de Gipuzkoa suscribió y desembolsó una ampliación de capital de Bidegi S.A por importe de 9,9 millones de euros para financiar la encomienda de gestión de la construcción de este último tramo de la carretera GI-632. El 26 de marzo de 2019 se abrió a la circualción este nuevo tramo, formalizándose el Acta de Recepción de las Obras con fecha 10 de julio de 2019. Con la puesta en servicio del tramo final de este corredor GI-632 pasa a denominarse A-636.

Asimismo, en 2016 se aprobó el Convenio Específico de Desarrollo nº 3 (CED3) de Bidegi por el que la Diputación Foral de Gipuzkoa le encomienda la ejecución de las obras de implantación de un peaje en la N-1 con el objetivo de desviar vehículos pesados de la N-1 a la autopista Eibar-Vitoria y evitar la saturación de la primera. En 2023 se ha formalizado el nuevo Convenio Específico de Desarrollo número 3 cuyo objeto es establecer las relaciones y bases de funcionamiento en relación con las operaciones de mantenimiento y explotación del sistema de cobro y la exacción del canon por uso para los vehículos pesados de transporte de mercancías en las carreteras A-15 y N-I en Gipuzkoa. Sobre el destino de los ingresos obtenidos por el cobro del Canon, cabe reseñar que ese destino se encuentra en la Norma Foral 5/2021, de 3 de diciembre. No obstante, y de acuerdo con lo previsto en la cláusula 7 del Convenio General, se establece la posibilidad de que la DFG pueda repercutir a Bidegi, S.A. el gasto que asuma por sus actuaciones en las carreteras N-I y A-15, siempre que esas actuaciones se encuentren entre las previstas por la normativa foral como posible destino de los ingresos obtenidos por Bidegi, S.A. mediante el cobro del canon.

Los gastos de explotación de Bidegi en el ejercicio 2023 han ascendido a 138,3 millones de euros.

- Sociedad pública foral “Etorlur Gipuzkoako Lurra, S.A.“

“Etorlur Gipuzkoako Lurra, S.A.”, cuyas denominaciones anteriores han sido “Itten Herriekin Lan Egiten S.A.“ y “Urnieta Lantzen, S.A.” se constituyó en 1990.

Tiene como objeto social promover, ordenar, urbanizar, comprar y vender suelo destinado a la ubicación de actividades económicas, viviendas, edificios y toda clase de equipamientos públicos, así como promover,

etxebizitzetarako, zerbitzutarako eta gizarte zuzkidurarako eraikinak, erabilera publikokoak nahiz pribatukoak, sustatzea, proiektatzea, eraikitzea, erostea, saltzea, alokatzea (edo beste era batera lagatzea) eta kudeatzea, Gipuzkoaren eta gipuzkoarren onurarako, betiere.
Era berean, xedea da Gipuzkoako Lurralde Historikoko nekazaritzako lurra eskuratzea eta kudeatzea.

Sozietatea, Gipuzkoako Foru Aldundiaren berezko bitartekoa eta zerbitzu teknikoa da, eta hark mandatuak bidali eta kontratuak adjudika diezazkioke, kasu bakoitzean dagokion organo eskudunek ezarritako moduan eta baldintzetan.

Gipuzkoako Foru Aldundia haren sozietate kapitalaren %100aren jabea da, 21,6 milioi eurokoa izanik.

Etorlurren 2023ko ustiapen gastuak 1,7 milioi euro dira.

- Informatika Zerbitzuen Foru Elkartea - Sociedad Foral de Servicios Informáticos SA (IZFE) sozietate publikoa.

Entitate hau 1993an sortu zen eta onartua izan zen ondorengo arau sortzailearen bidez: ekainaren 29ko 55/1993 Foru Dekretua, Informatika Zerbitzuen Foru Elkartea SA – Sociedad Foral de Servicios Informáticos, S.A. merkataritza entitate anonimoaren eraketari buruzkoa.

IZFEren jarduera nagusia da Gipuzkoako Foru Aldundiari eta honen erakunde autonomoei eta Gipuzkoako udalei zerbitzu informatikoak ematea.

Gipuzkoako Foru Aldundia haren sozietate kapitalaren %100aren jabea da, Sozietateak medio propioaren eta zerbitzu teknikoaren baldintza izanik. Kapitala 438,7 mila eurokoa da.

IZFEren 2023ko ustiapen gastuak 39,3 milioi euro dira.

### 2.2.3. Foru Fundazioak

Fundazioak irabazi-asmorik gabeko erakundeak dira, fundatzaileek hala nahi izan dutelako beren ondarea interes orokorreko helburuetara lotuta

proyectar, construir, comprar, vender o ceder en otras formas y gestionar edificios industriales, edificios de viviendas, servicios y dotaciones comunitarias que puedan ser de utilidad pública y privada, en beneficio de Gipuzkoa y sus habitantes.

Asimismo, tiene como objeto la adquisición y gestión de suelo susceptible de uso agrario en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

La Sociedad tiene la condición de medio propio y servicio técnico de la Diputación Foral de Gipuzkoa pudiendo conferirle encomiendas y adjudicarle contratos, en los términos y con las condiciones que se determinen por los órganos correspondientes para cada caso.

La Diputación Foral de Gipuzkoa es propietaria del 100% de su capital social, que asciende a 21,6 millones de euros.

Los gastos de explotación de Etorlur en el ejercicio 2023 han ascendido a 1,7 millones de euros.

- Sociedad Pública "Informatika Zerbitzuen Foru Elkartea – Sociedad Foral de Servicios Informáticos, S.A." (IZFE)

La constitución de esta entidad se realizó en 1993 y fue autorizada por Decreto Foral 55/1993 de 29 de junio, sobre constitución de la Entidad Mercantil Anónima "Informatika Zerbitzuen Foru Elkartea - Sociedad Foral de Servicios Informáticos, S.A."

La actividad de "IZFE" se centra en la prestación de servicios informáticos a la Diputación Foral de Gipuzkoa y sus organismos autónomos y a los Ayuntamientos guipuzcoanos.

La Diputación Foral de Gipuzkoa es propietaria del 100% de su capital social, teniendo la Sociedad la condición de medio propio y técnico de la misma. El capital asciende a 438,7 mil euros.

Los Gastos de explotación de IZFE en el ejercicio 2023 han ascendido a 39,3 millones de euros.

### 2.2.3. Fundaciones Forales

Las fundaciones son organizaciones constituidas sin fin de lucro que, por voluntad de las personas fundadoras, tienen afectado de modo duradero su

dutenak modu iraunkorrean. Fundazioek fundatzaileen borondatea, beren estatutuak eta, edonola ere, legea izango dituzte arau.

patrimonio a la realización de fines de interés general. Las fundaciones se rigen por voluntad de las personas fundadoras, sus estatutos y en todo caso, por la ley.

Fundazioak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen arabera arautzen dira.

Las fundaciones se rigen por la Ley 9/2016 de 2 de junio de Fundaciones del País Vasco.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eratu dituen fundazioak, kontuen bateratze honetarako aintzat hartu direnak, honako hauek dira:

Las fundaciones forales que están consitutidas por la Diputación Foral de Gipuzkoa y se consideran en relación a la consolidación son las siguientes:

- Kirolgi Fundazioa

- Fundación Kirolgi

Kirolgi Fundazioa irabazi asmorik gabeko entitate bat da, 1998. urtean eratua.

La Fundación Kirolgi se constituyó en 1.998, configurándose como una entidad sin ánimo de lucro.

Gipuzkoan kirola sustatzea eta garatzea du xede, errendimenduko kirolean arreta berezia jarriz eta, horretarako, babesle publiko zein pribatuak bilatuz.

El objeto de esta fundación es la promoción y desarrollo del deporte guipuzcoano, con prioritaria atención al deporte de rendimiento, a través de la captación de patrocinios públicos y privados.

Fundazioaren zuzkidura 30 mila eurokoa da, eta 139 mila euroko funts propioak ditu.

La dotación fundacional asciende a la cifra de 30 mil euros y los fondos propios a 139 mil euros.

2023an, 4,6 milioi euroko gastuak izan ditu Fundazioak.

Los gastos de la Fundación en el 2023 han ascendido a 4,6 millones de euros.

- Sueskola Gipuzkoako Fundazioa

- Fundación Sueskola Gipuzkoako Fundazioa

Sueskola Fundazioa irabazi asmorik gabeko entitate bat da, 2009. urtean eratua. Lege xedapen hauek kontuan hartuta araupetzen da: 9/2016 Legea, ekainaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzkoa, 100/2017 Dekretua, ekainaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioaren Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen duena, eta 101/2007 Dekretua, ekainaren 19koa, EAEko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duena.

Fundación Sueskola es una organización sin ánimo de lucro que se constituyó en 2009. Se rige por las normas contenidas en la Ley 9/2016 de 2 de junio de Fundaciones del País Vasco así como por los Decretos 100/2007 y 101/2007 de 19 de junio por los que se aprueban los Reglamentos del Protectorado de Fundaciones y del Registro de Fundaciones del País Vasco.

Fundazioaren xedea da Gipuzkoako Lurralde Historikoari eta Patronatuak erabakitzen dituen EAEKo beste lurralde eremuei bitarteko iraunkorrak ematea suteen aurkako borrokan eta prebentzioan eta arlo osagarrietan pertsonak trebatzeko: pertsonen eta higiezinen arrisku egoeren aurrean izan beharreko portaerak gizarteari erakutsi eta zabaltzea, segurtasunari buruzko pautak ematea, enpresa, lantoki, ikastetxe eta etxeetan gerta daitezkeen suak itzaltzeko teknikak erakustea, eta, oro har, salbamenduaren inguruko ezagutzak ematea.

Esta fundación tiene como objetivo dotar al Territorio Histórico de Gipuzkoa y aquellos otros ámbitos territoriales del País Vasco que se determinen por el Patronato, de medios permanentes para el adiestramiento y formación en materia de prevención y extinción de incendios y materias complementarias: impartir, difundir y mejorar el conocimiento social sobre el comportamiento ante situaciones de riesgo de las personas e inmuebles, y sobre la seguridad y las técnicas para extinguir el fuego originado en las emrpesas, centros de trabajo, centros educativos y hogares, y en general el salvamiento en su concepto más amplio.

Fundazioaren zuzkidura 30 mila eurokoa da eta 45 mila euroko funts propioak ditu.

La dotación fundacional asciende a la cifra de 30 mil euros y los fondos propios a 45 mil euros.

Sueskola Fundazioaren 2023ko gastuak 1,4 milioi euro izan dira guztira.

- Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa / Fundación Cambio Climático de Gipuzkoa

2018ko uztailaren 17an Gipuzkoako Foru Aldundiak eratu du Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa / Fundación Cambio Climático de Gipuzkoa, denbora mugagabez, eta Lege xedapen hau kontuan hartuta araupetzen da: 9/2016 Legea, ekainaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzkoa.

Fundazio hau Foru Aldundiari Gipuzkoako Klima Aldaketaren aurkako Borrokaren Estrategiaren garapenean laguntzeko berariazko eginkizunarekin eratu da, Gipuzkoako Gobernantza Klimatiko eta Energetikoan ezarritako hitzetan. Bere eginkizunak dira Gipuzkoako Foru Aldundiari laguntzea Gipuzkoan Klima Aldaketaren analisian, behaketan eta inpaktuaren kontrolean; diagnostiko ziurra lortzeko lan egitea eta eragileen ekintzara bultzatzea, klima-aldaketa gutxitzearren eta horretara egokitzearren hala nola Gikuzkoako Klima Aldaketaren aurkako Borrokaren Estrategiak egiten dituen aurrerapenak ebaluatzeko eta jarraipena egiteko prozesua bermatzea.

Fundazioaren zuzkidura sortze-horniduraz osatua dago eta 30 mila eurokoa da. Funts propioak 207,5 mila eurokoak dira.

Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa / Fundación Cambio Climático de Gipuzkoa 2023ko gastuak 1,2 milioi euro izan dira guztira.

- Ziur Fundazioa

2018ko uztailaren 10ean Ziur Fundazioa izenarekin eratu dute fundazio hau Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostiako Udalak, Lege xedapen hau kontuan hartuta araupetzen dena: 9/2016 Legea, ekainaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzkoa.

Fundazioaren helburua da Gipuzkoako lurralde historikoak fabrikazio aurreratuaren arloan dituen gaitasunak sendotzea, zibersegurtasun industrialean dituenak, bereziki, sektore teknologikoaren garapena bultzatzea; eta Gipuzkoako enpresek batez ere industriaren arloko enpresek, nazioartean duten lehiakortasuna eta posizioa indartzea.

Los gastos en la actividad de Fundación Sueskola del ejercicio 2023 han ascendido a 1,4 millones de euros.

- Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa / Fundación Cambio Climático de Gipuzkoa

El 17 de julio del 2018 la Diputación Foral de Gipuzkoa ha consitutido Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa / Fundación Cambio Climático de Gipuzkoa, que se constituye de conformidad con al Ley 9/2016, de 2 de junio, de Fundaciones del País Vasco, por tiempo indefinido.

Esta fundación se configura con la misión de apoyar a la Diputación Foral de Gipuzkoa en el desarrollo de la Estrategia de Lucha contra el Cambio Climático de Gipuzkoa, en los términos establecidos en la Gobernanza Climática y Energética de Gipuzkoa. Sus funciones son dar apoyo a la Diputación en el análisis, observación y control del impacto del cambio climático en Gipuzkoa; trabajar para obtener un diagnóstico certero y dinamizar la acción de agentes de cara a la mitigación y adaptación del cambio climático así como garantizar el proceso de evaluación y seguimiento de los progresos de la Estrategia de Lucha contra el Cambio Climático de Gipuzkoa.

Su dotación fundacional está compuesta por la aportación inicial y asciende a la cifra de 30 mil euros. Los fondos propios ascienden a 207,5 mil euros.

Los gastos en la actividad de Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioa / Fundación Cambio Climático de Gipuzkoa en el ejercicio 2023 han ascendido a 1,2 millones de euros.

- Ziur Fundazioa

El 10 de julio del 2018 bajo la denominación Ziur Fundazioa, la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de San Sebastián han consitutído una Fundación de conformidad con la Ley 9/2016 de 2 de junio de Fundaciones del País Vasco.

La Fundación tiene por objeto reforzar las capacidades del territorio Histórico de Gipuzkoa en materia de fabricación avanzada, en particular en materia de ciberseguridad industrial, impulsar el desarrollo del sector tecnológico y reforzar la competitividad y posicionamiento internacional de las empresas de Gipuzkoa, especialmente las del sector industrial. Para ello considera impulsar la

Horretarako, zibersegurtasunarean arloan ezagutza sortzea sustatzen du; eragileak, enpresa eta industriak sentsibilizatzea eta trebatzea; zibersegurtasunarekin lotutako jardunbideak ezagutaraztea eta enpresei jardunbide horiek ezartzeko bidea erraztea hala nola prebentziorako eta esku hartzeko bitartekoak jartzea.

Fundazioaren zuzkidura sortzaileek emandako sortze-horniduraz osatua dago eta 30 mila eurokoa da.

2023 ekitaldiko bere jardueraren gastuak 1,5 milioi euro izan dira guztira.

- Fundación Adinberri Fundazioa

Fundación Adinberri Fundazioa 2018ko uztailaren 17an eratu da eta Lege xedapen hau kontuan hartuta araupetzen da: 9/2016 Legea, ekainaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzkoa.

Fundazioaren helburua Gipuzkoako berrikuntza-potentzialari ahalik eta etekinik handiena ateratzea da, zahartze osasuntsuaren, sistema soziosanitarioaren bikaintasunaren eta alorreko industria-lehiakortasunaren alde. Horretarako, Agenda estrategikoan zehaztutako prestakuntza-, ikerketa-, berrikuntza-,ekintzailetza- eta inkubazio-jarduerak burutuko dira.

Fundazioaren zuzkidura sortze-horniduraz osatua dago eta 30 mila eurokoa da.

2023 ekitaldiko jarduera gastuak, 1,1 milioi euro izan dira guztira.

- Mubil Fundazioa

Mubil Fundazioa 2019ko maiatzaren 15ean sortu da. Fundazioa fundatzaileen borondatearen, estatutuen eta Euskal Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen arabera arautzen da.

Fundazioaren helburua da Gipuzkoako Lurralde Historikoak elektromugikortasun arloan dituen gaitasunak sendotzea, mugikortasun elektrikoarekin zerikusia duen sektoreak bultzatzea eta Gipuzkoako enpresek, nazioartean duten lehiakortasuna eta posizioa indartzea.

Fundazioaren zuzkidura sortze-horniduraz osatua dago eta 30 mila eurokoa da.

generación de conocmimento en el ámbito de la ciberseguridad; sensibilizar y formar a los agentes, empresas e industrias; difundir y hacer accesibles a las empresas la implementación de prácticas relacionadas con la ciberseguridad así como ofrecer herramientas de prevención e intervención.

Su dotación fundacional está compuesta por las aportaciones iniciales realizadas por los fundadores y asciende a la cifra de 30 mil euros.

Los gastos en su actividad en el ejercicio 2023 han ascendido a 1,5 millones de euros.

- Fundación Adinberri Fundazioa

La Fundación Adinberri Fundazioa se constituye el 17 de julio de 2018 y se rige por las normas contenidas en la Ley 9/2016 de 2 de junio de Fundaciones del País Vasco.

Esta fundación tiene por objeto maximizar el potencial de innovación de Gipuzkoa al servicio del envejecimiento saludable, la excelencia del sistema sociosanitario y la competitividad de la industria en este ámbito, articulando para ello actividades de formación, investigación, innovación, emprendimiento e incubación, de acuerdo con la Agenda estratégica.

Su dotación fundacional está compuesta por la aportación inicial y asciende a la cifra de 30 mil euros.

Los gastos en la actividad de Fundación Adinberri Fundazioa en el ejercicio 2023 han ascendido a 1,1 millones de euros.

- Mubil Fundazioa

Mubil Fundazioa se constituye el 15 de mayo de 2019. La entidad se rige por la voluntad de las personas fundadoras, por los estatutos, y en todo caso por la Ley 9/2016 de 2 de junio de Fundaciones del País Vasco.

Esta fundación tiene por objeto reforzar las capacidades del Territorio Histórico de Gipuzkoa en materia de electromovilidad, impulsar el desarrollo del sector asociado a la movilidad eléctrica y reforzar la competitividad y posicionamiento internacional de la empresa de Gipuzkoa.

Su dotación fundacional está compuesta por la aportación inicial y asciende a la cifra de 30 mil euros.

Mubil Fundazioaren 2023ko gastuak 1,9 milioi euro izan dira guztira.

- BSTK Fundazioa

BSTK Fundazioa 2022ko irailaren 20an sortu da. Lege xedapen hau kontuan hartuta araupetzen da: 9/2016 Legea, ekainaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzkoa.

Bere helburu soziala Gipuzkoako basoak bertan behera ez uztea da, basoen jabeei zaintza iraunkorreko zerbitzua eskainiz herrialdearen ikuspegitik, alderdi ekonomikoez gain, ingurumen- eta iraunkortasun-irizpideak kontuan hartuko dituena.

Fundazioaren zuzkidura sortze-horniduraz osatua dago eta 2 milioi eurokoa da.

BSTK Fundazioaren jardueraren gastuak 330 mila eurokoak izan dira 2023ko ekitaldian.

## 3. KONTUAK BATERATZEKO PROZEDURA

Kontuak bateratzeko, integrazio orokorraren prozedura erabili da. 2023ko abenduaren 31n Gipuzkoako Foru Aldundiak %50eko partaidetzatik gora duten sozietateetan finkatu dira kontuak, eta egoera finantzario horiek jabaria hartzerakoan integratuta geratu dira.

2023ko abenduaren 31n Foru Aldundiaren partaidetza %50etik beherakoa duten sozietateetan, aldiz, ez da eragiketarik egin.

Kontuak bateratzeko faseak:

- Balorazioen homogeneizazioa: aktibo eta pasibo batzuen balorazioak homogeneizatu dira.

- Denboraren arabera kontuak berdinkatzea: data berean kontuan hartzen dira Foru Aldundiaren eta mendeko sozietateen arteko kobratze eta ordaintze eragiketa guztiak.

- Ondare eragiketak: bateratzekoak diren erakundeen arteko jabetza harremanak deuseztatzen dituzte.

- Eragiketa ekonomikoak: jatorria bateratzekoak diren erakundeen arteko transakzioetan duten ondare-diferentziak deuseztatzen dituzte.

Los gastos en la actividad de Mubil Fundazioa en el ejercicio 2023 han ascendido a 1,9 millones de euros.

- BSTK Fundazioa

BSTK Fundazioa se constituye el 20 de septiembre de 2022. Se rige por las normas contenidas en la Ley 9/2016 de 2 de junio de Fundaciones del País Vasco.

Su objeto social es evitar el abandono de los bosques de Gipuzkoa ofreciendo a propietarios forestales un servicio de cuidado sostenible desde una perspectiva de país, que más allá de aspectos económicos tenga en cuenta criterios medioambientales y de sostenibilidad.

Su dotación fundacional está compuesta por la aportación inicial y asciende a la cifra de 2 millones de euros.

Los gastos en la actividad de BSTK Fundazioa en el ejercicio 2023 han ascendido a 330 mil euros.

## 3.PROCEDIMIENTO DE CONSOLIDACIÓN

El procedimiento de consolidación ha sido el de integración global, consolidándose las sociedades en las que la participación de la Diputación Foral de Gipuzkoa es superior al 50% a 31 de diciembre de 2023, integrándose dichos estados financieros desde el momento de la toma de dominio.

Para aquellas sociedades en las que la participación de la Diputación Foral es inferior al 50% a 31 de diciembre de 2023 no se ha efectuado operación alguna.

Fases de consolidación:

- Homogeneización valorativa: se han homogeneizado las valoraciones de algunos activos y pasivos.

- Conciliación temporal: se consideran a una misma fecha todas las operaciones de cobro y pago realizadas entre la Diputación Foral y las sociedades dependientes.

- Operaciones patrimoniales: eliminan las relaciones de propiedad entre los entes a consolidar.

- Operaciones económicas: eliminan las diferencias en el patrimonio que tienen su origen en transacciones entre los entes a consolidar.

- Eragiketa finantzarioak: jatorria bateratzekoak diren erakundeen arteko eragiketa finantzarioetan duten ondare-egoerak deuseztatzen dituzte.

## 4. INFORMAZIOAREN KONPARAKETA

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Kontabilitate Publikoko Foru Plan Orokorra abenduaren 28ko 51/2012 Foru Dekretuaren bidez onartu zen. Kontu bateratu hauek plan horri jarraituz eginak dira.

## 5. KONTU BATERATUAK

Kontu bateratu hauek aurkezten dira:

- 2023ko abenduaren 31n bateratutako balantzea.
- 2023ko abenduaren 31n bateratutako ondarearen emaitza ekonomikoaren kontua.
- 2023ko Aurrekontuaren likidazio bateratua.

- Operaciones financieras: eliminan situaciones patrimoniales con origen en operaciones financieras entre los entes a consolidar.

## 4. COMPARACIÓN DE LA INFORMACIÓN

El Plan General de Contabilidad Pública Foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa fue aprobado mediante el Decreto Foral 51/2012, de 28 de diciembre de 2012. Las presentes cuentas consolidadas se han confeccionado siguiendo lo dispuesto en dicho plan.

## 5. CUENTAS CONSOLIDADAS

Se presentan las siguientes cuentas consolidadas:

- Balance consolidado a 31 de diciembre de 2023.
- Cuenta del resultado económico patrimonial consolidada a 31 de diciembre de 2023.
- Liquidación consolidada del Presupuesto 2023.